

2. BALKOIEIEN ETA LEIHOEN EDERTZE LEHIAKETA

Debako Udalak Balkoien eta leihoen edertze lehiaketan parte hartzera gonbidatzen ditu herritarrak.

HELBURUA

Lehiaketa honen helburua da, herritarren parte hartzearen bidez, Debako ingurumen kalitatea eta irudia hobetzea. Landareen eta loreen garrantzia nabarmendu nahi da hiriko ingurune atseginagoa eta ederragoa lortze aldera eta, bide batez, ohitura on hori herritarren artean zabaltzea.

PARTE-HARTZAILEAK

Hala nahi izanez gero, Debako hiri-lurzoruan dauden etxebizitza guztiek parte hartu ahal izango dute, eta horretarako, izena eman beharko dute.

IZEN-EMATEA

Izena emateko hiru aukera daude:

- Maiatzaren 20tik ekainaren 14ra, Turismo bulegoan (10:00–14:00 eta 16:00-19:00)
- Maiatzaren 20tik ekainaren 14ra, hondartza@deba.eus helbidean izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta e-maila zehaztuta
- Maiatzaren 21an, Simon Berasaluze plazan izango den “FurgoBaratzean” (10:00-13:00) banatuko den inprimakia beteta.

OHARRAK:

- Lehiaketan izena emateko nahitaezkoa izango da inprimakia beteta entregatzea.
- Izen-ematea behin-betikoa izan dadin, parte hartzaileek dagokion bereizgarria jaso beharko dute Turismo bulegoan, eta balkoian edota leihoan jarri epaimahaiak bereizteko

OINARRIAK

- Furgobaratzean lore bakarra banatuko da etxebizitza bakoitzeko, amaitu arte. Lorea jasotzeko nahitaezkoa izango da inprimakia beteta entregatzea
- Kategoria bakarra egongo da: leiho edo balkoi hoberena.
- Balkoi edo leiho dotoreena sarituko da; eta horretarako, landare edo lore biziak erabiliko dira apaingarri gisa.
- Parte-hartzaileek balkoi eta leihoak nahi bezala apaindu ahal izango dituzte, beti ere, ingurua errespetatuz (auzokideak, kalea...) eta segurtasuna bermatuz.
- Epaimahaiak balkoia edo leihoa kaletik ikusteko aukera izan beharko du, eta balkoian bereizgarria (kartela) jarrita izan beharko da.
- Aipatutako baldintzak bete ezean, parte-hartzailea lehiaketatik kanpo geldituko da.

EPAIMAHAIA

- Epaimahaiaren iritzia apelaezina izango da
- Epaimahaia hiri lorategietan aditua den pertsona batek eta udaleko ordezkari batek osatuko dute.
- Epaimahaiak bilera itxiak egingo ditu saridunak hautatzeko eztabaidak eta bozketak egiteko.
- Balorazioa uztaileko lehenengo hamabostaldian egingo da.

HONAKO HAUEK BALORATUKO DIRA

- Kanpoko ikuspena
- Konposizioaren originaltasuna eta sormena.
- Apainketaren kalitatea.
- Apainketaren harmonia eta diseinua.
- Konplexutasuna.

SARIAK

2 sari mota egongo dira:

- **Herrikoa:** lehenengo sariak 200 euroko bonoa irabaziko du, eta bigarrenak, 150 eurokoa Debalai elkarteko saltokietan gastatzeko.
- **Eskualdekoa:** 250 euroko bonoa irabazlearen herriko saltoki elkartuetan gastatzeko.

Herriko eta eskualdeko sariak bateraezinak dira.

Uztailean jakinaraziko da epaimahaiaren erabakia, eta sari banaketa ere hilabete horretan egingo da. Parte-hartzaileei sari banaketa noiz eta non egingo den abisatuko zaie aldez aurretik.

Baliteke sariak hutsik geratzea, epaimahaiaren iritziz gutxieneko kalitate maila ez badute

KONPROMISOA

Udala telefonoz harremanetan jarriko da irabazleekin, eta horien izen-abizenak Debako Udalaren webgunean argitaratuko ditu: www.deba.eus.

Partehartze hutsagatik, partaideak baimena emango dio udalari bere identitatea (izena eta bi abizenak) eta saritutako balkoi edo leihoaren argazkia argitaratzeko. Lehiaketaren emaitzak herritar guztiei jakinaraziko zaizkie udal webgunean (www.deba.eus) eta hedabideetan argitaratuko diren prentsa oharren edo antzekoen bitartez.

Parte-hartzaileek balkoiei eta leihoiei argazkiak ateratzeko eta horiek zabaltzeko baimena emango dute.

Lehiaketa honetan parte hartuz gero, arestiko oinarriak onartu beharko dira.